

historia ikertzaile, zenbait libururen egile, irakaskintzari loturik dagoena eta euskarari anitz oren eskainia eta oraindik bere gaztarotik zerbait gehiago espero genezakeala, Euskaltzaindian sartzea geldirik egoteko ez denezkero.

Euskararen alde orain arte egin dituen lanen esker erakutsiz eta aurrerakoen pozgarriz, euskaltzainburuak diploma eman dio.

J. L. Davant jaunak batzarkideen txalo beroak jaso ditu.

Batzarra bukatzean herriko etxeak aperitib batera gomitatu gaitu, eta ondoren anaitasunezko bazkaria izan da Hostelleria du Château delako jatetxean.

Euskaltzainburua
LUIS VILLASANTE

Idazkaria
Juan San Martín

1976 - IX - 24

Donostian, Gipuzkoako Diputazio Jauregian, 1976ko irailaren 24an, arratsaldeko lauretan bildu dira: L. Villasante buru, A. Arrue, J. L. Davant, X. Diharce, A. Irigoyen, E. Larre, P. Lafitte, L. Mitxelena eta J. M. Satrustegi euskaltzain jaunak; P. Altuna, J. M. Aranalde, M. Atxaga, J. A. Etxebarría, S. Garmendia, J. Intxausti, E. Knörr, J. M. Lekuona, J. A. Letamendia, J. L. Lizundia, J. A. Retolaza, J. Zaitegi, A. Zatarain eta J. J. Zearreta euskaltzain laguntzaile jaunak, J. San Martín idazkari dela.

Haritschelhar, Irigaray, Lojendio euskaltzain jaunak ezin etorria adiarazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

Uztaileko eta abuztuko batzar agiriak onartu dira.

P. Lafitte jaunak laster joan beharra agertu du eta, eguneko gaietan, bere txostenari aurrea eman zaio.

a) *KOSKA ETA ENTTERKA HELETAN*, PIARRES LAFITTE JAUNAREN TXOSTENA

Herri guzietan ohiturak ez dira berdinak *hi*-ka mintzatzen eta Heletako ohituraz zenbait adiarazpen ematen ditu. Herririk gehienetan haur ttipieri *zu* eta haur helduagoeri *hi* egiteko ohitura da, baina Heletan adinak ez du ezer ikustekorik. Hango familia batean azterketa egin ondorean jakin zuen koskari *hi* eta entterkari *zu* esaten ziotela. Eta, han, *entterka* "introvertido" da eta *koska* "extrovertido".

b) HAR-EMANAK

Educación y Ciencia-ko Ministergoaren gutuna, Euskaltzaindiaren nortasunez, historiaz eta arautegiaz egingo duten liburuxka Bilboko Imprenta Industrial S.A. inprimategiaren esku uzten dutela eta gure esku

liburuxka honek behar dituen edergarriak hautatzea. Edergarri hautapena N. Alzola Gerediaga eta J. San Martinen esku uzten da, eta hauek jarriko dira inprimategiarekin har-emanetan.

Diru laguntza eman duten udaletxeen berri eman da: Iruñea, Barakaldo, Tolosa, Zaldibar eta Beasain. Azpeitikoak ordea, aurtengo presupestoak beterik dituela eta helduden urterako uzten duela.

Donostiako udaletxearen gutuna, 1976ko otsailaren 26ko R. D. delakoa kontuan harturik euskararen irakaskintza jartzearen alde dituzten asmoak agertuz eta gure babesa eskatuz.

Caracas-ko Euskera Lagunen Elkarteak delako bazkunak babesten duen "Andima Ibinagabeitia" sarirako epai mahaia izendatzen da: A. Irigoyen, J. A. Etxebarria eta J. A. Letamendia jaunak.

Euskal Herriko Arkitektoen Kolegio Ofizialaren proposamena, arkitektura hiztegia argitaratze bideetan jartzeko, Zumalabe euskaltzain laguntzaile jaunak egin zuen hiztegiari orraztapena ematea, hortarako izendatua den batzordeak Elhuyar taldea eta Arkitektoen kolegioaren laguntzaz.

P. Lafitte jaunak aditzera ematen digu, Baionako apezpikuak bikario general izendatu duela Hiriart-Urruti gure euskaltzain laguna euskaldunez arta hartzeko.

J. M. Satrustegi jaunak Iruñeko udaletxeak euskararen alde dituen asmoen berri eman du, eskoletan euskararen irakaskintza sartzeaz eta bere babespean ikastolak sortzeaz.

Bizkaiko egunkariak besterik adiarazi badute ere, Euskaltzainditik ez zen inor joan Bizkaiko Diputaziora Gobernazioko ministro jauna informatzera. Ohar hau agirian jartzea erabaki da.

d) GOIZEKO BILKURAREN BERRI

Herri ta herritarren izenen batzordeko idazkari den J. L. Lizundia jaunak goizean ikusi eta onartu diren izenen berri ematen du, Bizkaiko Leartibai arroak eta Deba arroaren behe aldea. Denbora faltaz, Arabako Aiara eskualdekoa eta Nafarroan Mendialdeko sei haran eta Erronkari-Zaraitzu urrengorako utzi dira. Dena dela, egin denaren berri edo naiz oraindik egin gabe gelditzen denaren berri jakin nahi duenak lau probintzietan guk ditugun ordezkartzetan aurkituko du.

e) "H" IKAKO ADITZ-JOKOETAN, ZATARAIN'DAR ANBROSIREN TXOSTENA

Hikako formetan "h" letraren erabilkerari buruzko berriak eman ditu, idazle zaharrak oinarri harturik eta hoietaz Lafon eta Uhlenbeck-ek eman zituzten arrazoiak aztertuz.

Ondotik izan den elkarrizketan, Mitxelena jaunak arrazoia ematen dio, lehendik gauza jakina zenez.

Ohi den otoitzarekin bukatu da batzarra.

Euskaltzainburua
LUIS VILLASANTE

Idazkaria
Juan San Martin